

# FUNTSEZKO JARDUERAK

Jarduera desberdinak burutuko ditugu sortzen ari garen enpresaren funtzionamendu onerako. Funtsezko alderdiak osatu ahal izateko, geroago, korrika makina gure bezeroei eskaintzeko.

Gure balorezko proposamena, honako jardueretan oinarritzen da:

## . DISEINUA:

Korrika makinaren diseinua gure esku egongo da, dena dela bezeroak zirriborro bat diseinatzeko aukera izango du gure web-orrialdearen bitartez, orientatzeko baliagarria izango dena edo gure lokalera hurbiltzea.

Etxeko lurrean izandako materialen arabera prezioa aldatu egingo da, baita pantaila digitala eduki nahi izango balute ere.



## . FABRIKAZIOA:

Guk kontratatutako enpresaren esku egongo da, diseinua egin ondoren haiek piezak fabrikatuko dituzte gure neurri eta eskatutako materialak kontuan hartuz. Reebok izango da enpresa hori. Korrika makinako piezak haiek egin ondoren, guk etxeetan instalatzeaz arduratuko gara.

## . ZERBITZUA:

Zerbitzu azkarra eskainiko dugu zeinean 24 ordutan, produktua erabat jarrita eta bere funtzionamendurako prest egongo da. Guzti hau, noski bere diseinuaren eta fabrikazioaren ondoren.

Korrika makinak, 2 urteko bermea izango du. Hondatzean edo apurtzean makinaren akats batengatik, berri bat emango diogu bezeroari edo tekniko batek haren etxera joango da konponketa egiteko. Ordaindutako dirua, aldiz, ez da inoiz itzuliko.

